



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## IGELDOKO KORUA, GERO ETA INDARTSUAGO /7



### AURKIBIDEA

Igeldoko Gaztiak /2  
Kixmi aisialdi taldea /2  
Ieltxo kultur elkarteak /2  
Etorkinen zentrua /3  
Arrauna:  
Aginagako Bandera /3  
Udazken Jaia 2011 /8  
Din Dinen, abentura /8

## ERREPORTAJEA: IGELDOKO HERRI KONTSEILU BERRIA /4-6

## Kaixo herrikide!!!

Uda bukatu da, baita oporrak ere, eta ikasturte berria jarri da martxan. Herriko talde ezberdinak lanean jarri dira buru-belarri: Igeldoko Gaztiak, Kixmi aisialdi taldea, Ieltxo kultur elkarte, Lezkarri Abesbatza...

Igeldoko Herri Kontseilu berria

ere irailarekin batera hasi zen maiztasunez biltzen, aurretik, bileraren bat edo beste egin badute ere. Esaterako, aurreko Herri Kontseiluarekin eta Donostiako Udalarekin. Bilera horietan hitz egindakoa eta aurrera begira Herri Kontseiluak dituen helburuak bildu ditu, besteak beste,

Orri Informatiboak ale honetan. Kide berriak hobeto ezagutzeko aukera ere badago.

Baina dena ez da lana eta urtero bezala, hilabete honetan Udazken Jaia izango dugu. Hain zuzen, urriaren 22 eta 23an izango da. Egitaraua azken orrian dago.

# Lau balore zehaztu dituzte Igeldoko gazteek ikasturte honetan lantzeko

Aurreko alean azaldu bezala, abuztuaren 4an asanblada irekia deitu zuten Igeldoko gazteek. Herria aztertze beharra ikusi zuten eta *Nolako Igeldo nahi dugu?* galdera oinarri hartuta egin zuten bilera. Bertan, balore ezberdinak zerrendatu zituzten: euskalduna, parte-hartzailea (aktiboa), irekia, adin guztiei irekitako ekintzak egitea, herritartasunaren “borroka”... Horiek balore orokortzat hartu zituzten, “garrantzitsuak edo kontuan hartu beharrekoak dira, baina ez lanketa bat eskatzen dutenak”. Ho-

ri horrela, lanketa aldetik garrantzia handiagoa zuten 4 balore edo oinarri finkatu zituzten: natura; ezagutza historikoa, ondare kulturala (Igeldo eta Euskal Herria); heziketa, aisialdia; eta genero berdintasuna. Jakinarazi dutenez, ikasturte honetan, balore horien inguruan egingo du lan gazte taldeak.

### Zinea eta lokala txukuntzea

Bileraz gain, azken bi hilabeteotan beste ekintza batzuk ere egin dituzte herriko gazteek. Alde batetik, ostiralero pelikula/dokumental emanal-

diarekin jarraitu dute. Irailarekin bukatu da egitasmoa. Oso aberasgarria eta interesgarria izan dela diote, leku eta garai ezberdinetako gai sozial eta politikoak ikutu baitira. Bestetik, irailaren 18an, auzolanean, lokala txukundu zen barrutik eta kanpotik, inguruko sasiak moztuta.

### Nafarroa Oinezera autobusa eta Gazte Topaketa

Orain, bi egitasmo dituzte eskurtean Igeldoko gazteek. Alde batetik, urriaren 16an Nafarroa Oinez izango da Tafallan eta bertara joateko autobusa antolatu dute Igeldotik ateratzeko. Izena emateko zerrenda Txapela tabernan dago. Bestetik, azaroaren 19an, Igeldo-Añorga-Antiguoren arteko Gazte Topaketa izango da.

## Bueltan da Kixmi, ikasiz eta jolastuz, lagunartean ondo pasatzeko asmoz

Urtero bezala, Kixmik ere ongietorria eman nahi dio kurtsu berriari. Hori horrela, aurtengo ekintzen berri eman du. Herriko ohiturekin jarraitu eta Kixmiko urteroko egutegian dauden ekintzak bultzatzeko asmoa dutela jakinarazi dute. Eta gaineratu dute: “Lagunartean, taldean, ongi pasatzea nahi dugu, ikasiz eta jolastuz. Herria dinamizatzea eta haur eta gaztetxoek herria ondo ezagutzea. Herritartasuna, hezkidetzeta, gozame-na, ingurune naturalaren ezagutza eta errespetua, euskara, talde iza-

ra... horiek dira aurrera atera nahi ditugun baloreak”.

Dagoeneko zehaztu dituzte hainbat ekintza:

\* Udazken festako tailerra: Urriak 22

\* Eskeko ensaioa eta tailerra: Abenduak 17.

\* Eskea: Abenduak 24/31.

\* Eskeko afaria: Urtarrilak 7.

\* Beste ekintzak: Irteera, Udaberriko festako tailerra eta Udalekuak.

Proposamen berriak onartzen dituzte. Horretarako, idatzi hona: [kixmiigeldo@gmail.com](mailto:kixmiigeldo@gmail.com).

### Ikastaro motzak egiteko aukera Ieltxorekin

Ieltxo kultur elkarteak 9 ikastaro antolatu ditu 2011-2012 ikasturterako: Musika Tailerra, Solfeo, Trikitixa, Panderoa, Pianoa, Gitarra, Akuarela, Aerobik eta Ingle-sa. Horiek martxan dira dagoeneko. Dena dela, elkartetik jakinarazi dute, ikasturtean zehar ikastaro motzak eskaintzeko asmoa dutela eta horretarako garrantzitsua dela norberak dituen ideiak azaltzea. Harremanetarako: kultur etxeko bulegoa (asteartetik ostiraler-a 15:30-19:30), 943 31 30 30 telefonoa edo honako helbidea: [ieltxokulturelkartea@ymail.com](mailto:ieltxokulturelkartea@ymail.com).



# Etorkinen etxera bixita

Irailaren azkeneko asteazkenean, Igeldoko adin txikiko etorkinen etxeak, ate irekien jardunaldia antolatu zuen. Herritik 10 laguneko koadrila inguratu zen eta bertan, etxean bizi diren gazteak, hezitzaileak, lagunak... eta merienda goxoa, zain izan zituzten. Robertok eta Agurtzanek (egungo zuzendaria eta hasieran izan zena) etxea erakutsiz bertan nola bizi diren eta zer egiten duten azaldu zien bertaratutakoei.

Une honetan, 3 gazte besterik ez daude, hasiera batean sartutako askok jada 18 urte bete baitituzte, eta harre-  
ra etxeetatik zaindutako pisuetara edo euren kabuz bizitzera pasa ohi dira. Gainera, geroz eta gazte gutxiago iristen dira Gipuzkoara eta Euskal Herrira orokorrean, batetik egora ekonomikoa dela eta, beraien helmuga Europa iparraldeko herrialdetan kokatzen dutelako eta bestetik, beraien herritik irteetako geroz eta zailtasun handiagoak izaten dituztelako.



**Bertan bizi diren adin txikiko etorkinen egunerokotasuna nola izaten den azaldu ostean, merienda goxoa egin zuten bertaratutakoei.**

Euren egunerokotasuna nola izaten den azaldu ostean, merienda goxoa dastatuz bertan bildutako lagunekin solasean aritzeko parada izan

zuten, hezitzaileekin edo eta etorkinen inguruan antolatutako proiektu ezberdinetan parte hartzen ari diren lagunekin.

# Toletea hautsi, eta ezin estropada bukatu

Aginagako V. Banderan hartu zuten parte Igeldoko arraunlariak, baina ezin izan zuten estropada bukatu. Aginagak irabazi zuen.

Urriaren 1a zen eta Aginagako V. Bandera zegoen jokoan. Estropada txukuna egiten ari ziren Igeldoko arraunlariak. Hirugarren tandan atera ziren Zarautzekin batera eta aurretik ziren. Hirugarren ziboga egitera zihoazenean, ordea, patroiarri toletea hautsi zitzaion (arrauna bertara lotzen da estroboaren bidez) eta ezin izan zuten estropada bukatu, zibogak egi-



**Patroia: Aitor Gomez getariarra. Arraunlariak: Jon Lizarazu, Iñaki Garmendia, Joritz Etxeberria, Aitor Etxeberria, Joxe Mari Uranga eta Jon Enbil.**

teko beharrezko baitzuten eta bukatzeko bi geratzen zitzaizkien.

Aginagako V. Bandera, aurten, Aginagan geratu da. Bertako mutilek 07:58ko denboran bukatu zuten estropada. Bigarrena, Hondarribia izan

zen: 08:00. Ondoren, Kaiku 08:05, Getaria 08:08, San Pedro 08:12, Orio 08:14 eta Zarautz 09:10 (arraunlari bat gutxiagorekin bukatu zuten). Lehenengo bi urteetan Oriok eraman du bandera eta beste bietan Kaikuk.



Gurutze Dorronsoro, Ioritz Galparsoro, Iñaki Marko, Ramuntxo Urruzmendi (kontseiluburua), Igor Arrieta, Ion Uzkudun eta Iker Zinkunegi (argazkian falta da) dira Igeldoko Herri Kontseiluko kideak.

## Herri Kontseilu berria jarri da martxan

Igeldoko Herri Kontseilu berriaren funtzionamendua, helburuak eta kideak hobeto ezagutzeko, beraiengana jo du Orri Informatiboak. Azaldu dutenez, irailean hasi dira biltzen eta

plangintza zehazten ari dira oraindik. Bestalde, aurreko Herri Kontseilurekin eta Donostiako Udalarekin bilera bana eginga dute eta horien berri ere eman digute.

Aurreko alean azaldu bezala, ekainaren 19an egin ziren hauteskundeetan Herri Kontseilu berriko 7 kideak aukeratu ziren: Ramuntxo Urruzmendi (kontseiluburua), Igor Arrieta, Ion Uzkudun, Iñaki Marko, Iker Zinkunegi, Ioritz Galparsoro eta Gurutze Dorronsoro. Orditik hona, Herri Kontseiluak egingakoaren berri izateko, kontseilu kideekin bildu da Orri Informatiboa.

Herri Kontseilua orain dela 4 hilabete osatu bazen ere, tartean udara eta oporrak izan dira eta kideek azaldu dutenez, irailarekin batera jarri dira serio martxan. Hori horrela, jakinarazi dute oraindik plangintzarik ez dutela zehaztu, horretan ari direla lanean eta karguak eta ardurak ere zehazten ari direla.

Dena dela, udaran zehar ere hainbat kontu izan dituzte eskuartean. Haste-ko, uztailaren 27an, aurreko Herri Kontseilurekin bilera egin zuten. Erabaki zuten teknikariak jarraitzea

(Nerea Lizarralde). “Beharrezkoa ikusten zen teknikari bat izatea Herri Kontseilurako eta egokiena aurretik zegoenarekin jarraitzea zela erabaki zen, aurrez bera izan baitzen aukeratua lan horretarako. Gainera, iruditu zitzaigun bera zela baliagarriena, aurreko Herri Kontseilutik geratzen zen bakarra zelako. Hori bai, bere lana gehiago zehaztu da eta jarraipena egingo zaio”, azaldu dute kontseilu kideek.

Horrez gain aztergai izan zituzten, dokumentuak, karguen aldaketak, pendiente geratzen ziren proiektuak... “Pixka bat gu kokatzeko izan zen bilera”, diote. Bilera hartan ere erabaki zen Donostiako Udalarri lehenbailehen bilera bat eskatzea.

### Donostiako Udalarekin, bilera

Bilera abuztuaren 5ean izan zen. 15 lagun elkartu ziren: Igeldotik, Herri Kontseiluko 7 kideak eta Donostia-

ko Udaletik, Juan Karlos Izagirre alkatea, Iosu Ruiz Fomentoko zinegotzia, Asier Jaka Auzoetako zinegotzia, Gorka Goiatxe Hirigintzako zinegotzia, Olatz Mujika eta Eva Salaberria Auzoetako Teknikariak, Aitor Ibero Alkatezako Gabinet Burua eta Ekai Txapartegi Alkatezako Komunikazio Arduraduna.

Bilera hartan, hasteko, Herri Kontseilu berria aukeratzeko hauteskundeak nola izan ziren azaldu zuen IHKK. Prozesua azaldu zuten eta txostena eman zieten udal ordezkariari. “Oso gustora geratu ziren eta sekula ez zutela halakorik ikusi azaldu zuten”, nabarmendu dute Kontseilu kideek.

Ondoren, Igor Arrietak Udaletxea eta IHKaren arteko hartueman nola bideratu beharko litzatekeen azaldu zuen, dirua zertara bideratu beharko litzatekeen... Aurrekontuaz eta konpetentziez aritu zen. “Azaldu genien



gauzak egiteko aukera behar dugula, hau da, konpetentziak eta dirua. Orain arteko 6.000 euroekin ezin dugula ezer egin mahai gainean jarri genien”.

Udalak, berriz, Auzo Udalaririk buruz (Ente Local Menor) hitz egin zuen. “Gure abokatuak azaldu digu, ordea, ez dela komenigarria bide horretatik jotzea, desanexioa lortzeko. Beraz, beste harreman bat behar dugula planteatu zitzaie. Hori nola egin erabakitzeke, egoera aztertu egin nahi zutela azaldu zuten. Hori bai, disposizio oso ona azaldu zuten”, azpimarratu dute Igeldoko ordezkariak.

Amaitzeko, Igeldotarren premiazko gaiak zeintzuk diren azaldu zitzaizkien, gai konkretuak: Iturrietako espaloia, sindikatua, Eskola Zaharra, kultur etxea eta Babes Ofizialeko Etxeak. “Sindikatuari dagokionean, gutxienez teiltatua konpontzea eskatu zen, erortzen ari baitzen, eta arriskuan zegoen zati bat kendu da. Bertan zegoen autobus parada ere kendu dute. Babes Ofizialeko Etxeak dagokionean, jarraipena egiteko eskatu zen eta igeldotarrantzat direnak husten doazen heinean, igeldotarrak lehentasuna izatea. Gaiak aztertu egin behar dituztela azaldu zuten”.

**Osatutako taldearekin gustora daudela eta ilusioa dutela azpimarratu dute, baina emakume gutxi egotea aipatu beharrekoa iruditu zaie.**

#### **Hiru norabidetan lanean, orain**

Esan bezala, irailean hasi zen biltzen Herri Kontseilu berria. Lehenengo bilera irailaren 6an egin zuten, batez ere, Udazken Jaiari begira. Eta karguak erabaki zituzten, diruzainarena eta idazkariarena. Gainerakoan, hala azaldu dute: “Oraindik plangintzarik ez dugu egin, horretan ari gara, lan ildoak zehazten, baina orain ere badiugu markatuta 3 puntu edo 3 atal: Alde batetik, karguak, paperak, finkatzea; bestetik, epe luzerako egitekoak antolatzea; eta azkenik, momentuko beharrei erantzutea, hala nola, Udazken Jaia, sindikatuko teiltatua...”.

#### **Osatutako taldearekin gustora**

Taldearen osaketari buruz galdetuta, gustora daudela eta ilusioa dutela azpimarratu dute, baina emakume gutxi egotea aipatu beharrekoa iruditu zaie. “Emakume gutxi dago. Desoreka han-

dia dago eta aztertu beharrekoa iruditzen zait”, dio Iñaki Markok. Ramuntxo Urruzmendirik kurioz iruditu zaio. “Hautagaietan nahiko parekatuak geunden gizonetzakoak eta emakumezkoak. Gainera, niretzako garbi zegoen emakumezko gehiago aterako zirela. Sorpresa hartu nuen”. Iker Zinkunegik honakoa gaineratu du: “Herri Kontseiluan zazpi kideetatik bakarra da emakumea, kontuan izanda Igeldon badaudela elkarte desberdinetan bere gaitasuna argi asko erakutsi dutenak. Badirudi kasu askotan emakumeek egiten duten lan isila ez dela nahikoa baloratzen. Gizonekin eta liderazgoarekin lotzen diren ezaugarri batzuk zorritzarekin oraindik ere pisu gehiegi dute”. Bestela, jende diferentea, lanbide ezberdinetakoak daudela eta positiboa iruditzen zaiela azaldu dute.

Bilerak bi astez behin egiten dituzte, asteartetan, 21:00etatik 22:30etara. Bilerak itxiak ez diren arren, orduetako etekina ateratzeko, norbaitek zerbait komentatu nahiko balu, uste dute hobe dela alde aurretik teknikariarekin hitz egitea edo Herri Kontseiluko kideren batekin. Telefono zenbakia: 943 31 30 30; eta helbide elektronikoa, honako hau: [herrikontseilua@gmail.com](mailto:herrikontseilua@gmail.com).

### **Ramuntxo Urruzmendi:**

**1.-** Ramuntxo Urruzmendi Zendoia. 52 urte (aurten 53). Kamio etxea. Baxillera. Zerbezera garai batean, orain prejubilatuta. Barazkilaria nintzela ere jarri zidaten hautagaien zerrendan, hori eztaikit nondik atera zuten!jeje.

**2.-** Hasieran ez nuen aurkezteko asmorik. Herri Kontseiluak, Kixmik eta beste pertsona batzuek proposatu nindutelako onartu nuen hautagai izatea. Denbora libre asko nuela eta lata pixka bat eman zidaten.

Asmoa borondate osoarekin herriaren alde lan egitea da.

**3.-** Gustokoena kirola edo kultura arloko zerbaitetan lan egitea izango litzateke, baina uste dut bi udaletako harremanak (Igeldo-Donostia) eta hirigintza izango direla momentu honetako gai garrantzitsuenak.

**4.-** Herri Kontseilu berria oraindik "aterizatu" ezinik dabil zazpi kideak berriak garenez. Pixkanaka joango gara jabetzen zer erantzukizun eta zenbat lan egiteko daukagun, herri hau

*1.- Aurkezpena: Izen-abizenak, bizilekua, adina, ikasketak, lanbidea...*

*2.- Zergatik aurkeztu zinen Herri Kontseilu berrirako hautagai moduan? Zerk bultzatuta? Zer asmorekin?*

*3.- Zertan ikusten duzu zure burua, zer alorretan lan egiteko? (errazago edo gustokoago)?*

*4.- Nola ikusten duzu Herri Kontseilua orain, barrutik, eta lehen zer irudi zenuen, kanpotik?*

aurrera atera nahi badugu.

Herri Kontseilu zaharrari buruz lan ikaragarria egin dutela urte askoan uste dut eta herri txiki honek bizirik jarraitzen badu, zenbait jendek egindako lanari esker izango da.

### **Igor Arrieta:**

**1.-** Igor Arrieta Etxabe naiz, Igeldon bizi naiz, Kaxkoan, eta 38 urte ditut. Zuzenbidean lizentziatua eta abokatua naiz.

**2.-** Donostian jaio arren, beti gustatu izan zaigu Igeldo eta hemen bizi garenetik (4 urte) familiako lau kideok herriaren parte sentitzen gara. Ondorioz, uste dut inguruko herritar guztiok kolaboratuz, bakoitzak ahal duen neurrian, herri bezala

hobetu eta herriko bizi kalitate hobetu dezakegula egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat.

**3.-** Komeni den eta beharrezkoa den alor guztietan. Instituzioekin harremanak izan daitezke edo herri-ondasunak

konpontzea, behar denaren arabera.

**4.-** Egoera dagoen bezala, lan konplikatu da, baina espero dut etorkizunean eskertuko dena izatea. Aurretik Herri Kontseiluan parte hartu duten guztiek lan handia egin dute komunitatearentzat, zeregin honen jarduera modu honetan bakarrik ulertu daiteke.

### **Ion Uzkudun:**

**1.-** Ion Uzkudun Amunarriz, jaiotzez arrasatearra, egun Igeldon bizi naiz, Kaxkoan, 40 urte, ingeneroa eta enpresa kudeaketan masterra, eta lanbidez garapen profesionalaren inguruan enpresa aholkularia. Igeldotarra sentitzen naiz, Itsasorekin batera izandako semeak Igeldon jaiok izatea aukeratu genuelako, eta urteak aurrera joan ahala, bat apur bat gutxiago da bere jaioterrikoa eta apur bat gehiago bere semeen jaioterrikoa.

**2.-** Egia esan herritar batzuk hurbildu zitzaizkidalako eta haiek bultzatuta bezala aurkeztu nintzen, eta besteengandik bilatzen nuen edo espero nuen konpromisoa nik ere jartzeko beharrean sentitzen nintzelako. Horretaz gain, herriaren inguruan gauza ederrak egiteko aukera politikak daudelako, eta horiek bultzatzeko asmoz ere aurkeztu nintzen.

**3.-** Lan soziala eta kulturala egiten ikusten dut gehiago edo gusturago nire burua, herritarren arteko komunikazioa eta elkar-kidetzatza bultzatzen, egunerokotasunean igeldotarrentzat bizikidetzatza aukerak eta baliabideak garatzen, herri identitatea garatzen, euskararen presentzia indartzen, eta herritarrengandik oso hurbileko kudeaketa egiten.

**4.-** Tira, hasieran emozioa eta "zorabio puntu bat" ere sortu zidan aukeratua izateak. Talde jatorra elkartu garelako (hautesleek gaituzuela) uste dut, anitza aldagai askotan eta beraz bateragarria. Momentu honetan indarrez gaude, proiektu batzuekin ilusionatuak eta lan egiteko asmoz, baina errealistak izan behar dugu eta denborak esango du honek zer ematen duen. Aurreko herri kontseilua gutxi ezagutu nuen baina errespetu handia diot figurari eta beraiek ereindako lana eta jasotako eskarmentua ikasi eta erabiltzeko asmoz sentitzen naiz.

### **Iñaki Marko:**

**1.-** Iñaki Marko (izen osoa: J. Inazio Marko Juanikorena). Hernaniarra, duela 17 bat urte Igeldoko Kaxkora bizitzera etorria... Lurdes izeneko neska baten arrimoan. Bi alabaren aita. XX. mendeko 60. hamarkadaren hasieran jaio nintzen, artean Franco diktadorea bizi eta agintean zela. Pedagogian lizentziatua eta Hezkuntza Zientzietan Doktoa. Gizarte erakundetan lanean eta militantzian aritu izan naiz, profesional autonomo gisa ere jardun izan dut. Egun unibertsitatean irakasle eta Filosofia eta Hezkuntza zientzien Fakultateko dekanordea naiz.

**2.-** Herriko hainbat pertsonen nire izena proposatu zuten, eta horren aurrean ez nintzen ezezkia esateko kapaz izan. Bestalde, herri dinamikak eta partehartzeak gizarte-komunitatearen garapen orekatu eta osasuntsurako duten garrantziaz kontzientea naiz; eta pentsatzen dut neronek ere horretan nire aletxo jarri behar dudala. Nire asmoa Igeldoren garapenean laguntzea da, herri eta komunitate gisa indartu eta ahalmenu dadin urrats berriak ematen laguntzea.

**3.-** Igeldoren ezaugarriak kontuan hartuta, pentsatzen dut denoi tokatuko zaigula pixka bat denetik egitea. Dena den, orain ari gara taldean egitekoak aztertzen eta lanak antolatzen.

**4.-** Nik lehen aitzindari gisa ikusten nituen, udala eduki gabe gizarte-autoantolaketan urratsak emateko eta egituratzeko gai izan ziren pertsonak eta gune aitzindaria; urte luzetan lan esker-ga egin duena, eta argi eta ozen zoriondu beharko genukeena. Orain, barrutik, ardura handiz ikusten dut; hori bai, iruditzen zait talde anitza sortu dela, gogotsu dagoena eta Kontseiluburuaren gidaritzapean lanari ekingo diona. Geroak esango du.

### **Iker Zinkunegi:**

**1.-** Iker Zinkunegi Arrilaga naiz, Amezti-bekoa baserrikoa, eta 31 urte ditut. Soziologia ikasketak ditut eta lanbide fijoan gabe

nago, baina azkenaldian karpn muntaketan nabil.

**2.-** Hautagai kopuru polita bermatu behar zelako aurkeztu nintzen, Herri Kontseilu indartsu bat sortzeko eta nire burua beste batzuek proposatu zutelako. Baiezkoa ematera inguruko jendeak bultzatu ninduen, gehien bat nire arrebak. Egia esanda, nire aurreneko asmoa hautatua ez izatea zen, baina banekien txikiak izanda ere, hautatua izateko aukerak banituela eta kasu horretan beste Herri Kontseilu kideei lan zama arintzea zen nire helburu nagusia.

**3.-** Oraindik lan arlo ezberdinak ez ditugu zehaztu eta nire burua ez dut funtzio zehatz batean ikusten. Igarotzen ari naizen garai pertsonalagatik Herri Kontseilu kidea izatearena ere erronka irekia bezala ikusten dut, hortaz, oraindik ez dut nire burua inon kokatua ikusten.

**4.-** Kanpotik ikusita iruditzen zitzaidan arazo eta behar asko, bitarteko gutxirekin bideratzen zituela Herri Kontseiluak, nagusiki bere kideen dedikazio handian oinarrituta. Bere kideek egoera txar asko jasan behar zituztela, hau da, esaten den bezala "marroi" haundi bat zela. Orain, Herri Kontseilu kide bezala, nire usteak konfirmatu ditut, jorratu behar dugun arazo kopuruak ez digu uzten gure burua kokatzen, presazko arazo bat konponbidean jartzen dugunerako beste hiru sortzen dira. Gainera, hauek bideratzen ditugun bitartean, konpontzeke dauden herriko arazo potoloenak nondik heldu aztertu beharrean gaude.

### **Ioritz Galparsoro:**

**1.-** Ioritz Galparsoro Arratibel naiz, 27 urte ditut eta Igeldon bizi naiz (Lauspeltz da etxearen izena). Ikasketei dagokienez Arkitektoa naiz, baina oraingo behintzat lanbidez tabernaria naizela esan liteke.

**2.-** Hasiara batean aurkezteko asmorik ez nuen arren, ingurukoak bultzatuta eta proposatu nindutenak animatuta azkenean nire burua baliagarri ikusi nuen lanerako. Ilusioz hartu nuen, lan polita izan zitekeelakoan, gai interesgarri asko ikusten nituen eta.

**3.-** Printzipioz, nire ikasketei mugatuta, hirigintza arloan ikusten dut nire burua, baina azken batean gai eta alor guztiak daude elkarrekin erlazionatuta eta ikuspegi orokor bat beharrezkoa da. Ondoren, taldeko bakoitzak bere "espezialitatean" sakondu dezakeen arren, talde bat osatu behar dugu.

**4.-** Aurretik ere aitaren eskutik banuen Herri Kontseiluaren nolabaiteko ezagupen bat eta orain barrutik esan dezakedana zaharrak berri direla da. Nahiz eta Donostiko udaletxetik haize berriak datozen, lanerako eritmoak eta tramiteak oso motelak dira eta zuk di-da batean konpontzeko asmoa daukazun hori faktore askok baldintzatuta dago.

### **Gurutze Dorronsoro:**

**1.-** Gurutze Dorronsoro Illarramendi. Igeldon, Ondazarte baserrian jaioa naiz eta egun Kaxkoan bizi naiz. 35 urte ditut. Magisteritzan diplomatua eta irakasle lanetan ari naiz egun, haur hezkuntzako irakaslea naiz.

**2.-** Aldaketaren beharra zegoela entzuna genuen, herri bazarretan ere parte hartu nuen ahal nuen neurrian. Hautagai moduan atera nintzenean, lehenengo zerrenda haitan, herriarekin neukan eta sentitzen nuen konpromezuak bultzatu ninduen aurrera egitera. Ingurukoek ere animatu ninduten.

**3.-** Kultura alorrean eta baita haur eta aisialdiaren inguruan lan egingo nuke batez ere. Eskola eta herriaren arteko harremanak estutzearen aldekoa naiz eta gai honen inguruan ere arituko nintzateke.

**4.-** Argi dago lan ugari dagoela esparru gehienetan, baina lanari bere neurria hartu eta lehenetsunak aztertzen ari gara momentuan, hauei aurre egin asmoz. Aurrekoek egindakoa baloratu eta hasita zeuden proiektu haiek ere aztertzen ari gara. Gainera momentu ona dela uste dut udaletxearekin harremanak sendotu eta elkarlanean aritzeko.

Beraz, lanean arituko naiz herriaren eta herritarren mesederako. Herritarren hitza entzun eta ordezkari bat naizela ahaztu gabe. ■



# Igeldoko korua, gero eta indartsuago

Irailen hasi zuen Igeldoko Lezkarri Abesbatzak ikasturte berria. Aldaketekin gainera. Ia bederatzi urte eta gero, Kote de la Granjak zuzendari izateari utzi dio eta haren ordean, Carmen de las Cuevas ari da. Abesbatza gertutik ezagutzeko asmoz, bigarren entsaioan izan da Orri Informatiboa.

Lezkarri Abesbatzak 9 urte beteko ditu Gabon inguruan. Hala kalkulatu du kantatzeko gogoz hasiera hartan biltzen hasi zen talde txikiak: Joxe Dorronsoro, galparsorotarrak, sorondotarrak, Marian Anza... “Abesteko gogo genuen herritar batzuk pentsatu genuen, zergatik ez gara abesteko elkartzen? Hasieran ez ginen koru bezala hasi”, dio Dorronsorok. “Ondoren, Kote jakin zuen talde txiki bat biltzen hasi zela eta zuzendari gisa aritzeko eskaini zuen bere burua. Guk gustora hartu genuen”. Egun, 20 lagun ari dira koruan. Igeldotarrak dira gehienak eta ez direnak, Igeldorekin lotura dute: senideren bat bertan bizi da...

### Hutsetik hasi

Kote de la Granjak hasierako urte haiek gogoratzen ditu. “Hiru bat lagun kenduta, gainerakoek ez zekiten abesten, eta hasiera-hasieratik hasi ginen”. Koruko



zuzendaritza uztearen arrazoia galdetuta dio, ia 9 urte pasa direla eta nekatu egin dela pixka bat. Eta gaineratu du: “Nik ikusten nuen metodo berria behar genuela, nik erakutsi nezakeena agortua zegoela eta korua aurrerago joateko, beste zuzendari berri bat behar genuela. Horrez gain, niri beti abestea gustatu izan zait. 50 urte daramatzat abesten, koru askotan egona naiz eta hemen ere abeslari bezala aritu nahi nuen”.

### Zuzendari berria, gustora

Carmen de las Cuevas hartu du Kotereren lekua. Carmen Magisteritza Eskolako Musika departamentuan aritzen da. Xeles Illaramendik ezagutzen du eta berak aipatu zion Igeldoko koruan zuzendari baten bila zebiltzala. Carmen Koterekin elkartu zen eta ideia eta estiloa asko gustatu zitzaizkion eta salto egitera ausartu zen.

Carmenek esperientzia handia du zuzendari gisa. Orain arte 30-60 laguneko koruak izan ditu eta Igeldokoa 20

lagunekoa izanda, oso polita dela dio eta oso gustora sentitzen dela. Horrez gain, nabarmendu du, Igeldoko korua oso orekatua dela. “Lau ahots izaten dira: emakumeetan, altuena, sopranoa da, eta bajuena, kontraltua. Gizonezkoetan, berriz, altuena, tenorea, eta bajuena, baritonoa. Eta Igeldoko kasuan, ahots bakoitzetik bosna lagun daude”.

### Herritar guztiei irekia

Abesbatzak askotan elizako kantuekin lotu ohi dira, baina Lezkarriko kideek argi utzi dute hori ez dela horrela. Denetarik abesten dute, baita abesti afrikarrak ere! Gainera, abestuz giro ederrean ibiltzen dira. Irteerak izaten dituzte herri ezberdinetako emanaldiak direla eta. Gogorarazi dute abesbatza irekia dela. Oraingoan, astelehenero biltzen dira 20:00etatik 21:15ak bitarte.

### San Pedrotako emanaldia

Abesbatzak eskaini ohi dituen emanaldien artean, Igeldoko San Pedro festetan eskaini ohi duena dago. Aurten ere eskaini zuten emanaldia, ederra gainera, baina Orri Informatiboak ez zuen bere berri eman, despiste bat tarteko. Hori dela eta, barkamena eskatzen dizuegu abesbatzako kideei gure asmoa ez baitzen zuen lana gutxieste. Eta barkamena eskatzeaz gain, orain arte bezala, herritar guztion belarriak goxatzen segitzera animatzen zaituztegu. ■



## UDAZKEN JAIA 2011

### URRIAK 22, LARUNBATA

17:00 Gaztain bilketa haurrekin. Gogoratu oinetako erosoak ekartzea eta 4 urtetik beherakoak gurasoen laguntzarekin.

20:00 Sardina da herriko plazan.

22:00 Antzerki irakurketa eskolan.

"Herioa eta dontzeila"

Idazlea: Ariel Dorfman;

Aktoreak: Fito Rodrigez,

Ramon Agirre, Itziar Ituño

eta Asier Sota.

Sarrera: 5 euro



### URRIAK 23, IGANDEA

10:30-13:30 Azoka Igeldoko baserrietako produktuekin. Gogoratu azokan ez direla plastikozko poltsak emango. Nahi izanez gero oihalezkoak salgai izango ditugu.

10:30 Meza.

11:00 Hamaitakoa herriko jubilatuentzat Kultur Etxean.

14:00 Bazkaria Din-Din elkarteak prestatua eta Xabier Sukia eta Ibai Esoain bertsolariek alaitua. Bertan Igeldoko aitona eta amona zaharrenak omenduko dira.

*\*65 urte beteak dituzten edo arden beteko dituzten igeldotar guztiak gonbidatuta daude, baina Igeldotik kanpo bizi direnek ezinbestekoa izango dute telefonoz deitzea, 943 31 30 30 zenbakira, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.*

18:00 Taloak eta motozerrarekin egur taila erakustaldia herriko plazan.

Egun osoan zehar barra irekiko da pintxo eta guzti.

**OHARRA:** Bazkariko txartelak salgai:

Buena Vista, Txistu eta Txapela

## Din Dinen, abentura

**A**skotan ikusi dugu Elkartean, Igeldoko zein Gipuzkoako altxortzat hartzen den iturriaren argazkia, baina, hura bertatik bertara ikusi ahal izateko, espedizioa antolatzearabaki genuen. Abentura zirrargarria hastear zegoen.

Lehenengo urratsa izan zen iturria zehatz-mehatz non zegoen jakitea. Hau komerik! Galdetu genuen hemen, eta galdetu genuen han. "Amune ta Marabieta tarten... hor nonbait..." esaten zuten, "paetan kontra... hor nonbait..." eta guztiak aitortu zuten inoiz ez zutela ikusi.

Egoera aztertuta, taktika aldatu genuen, hortaz, eta pleistozenotik Igeldon daramaten familiengana jo genuen. Zein izango gure sorpresa, haiek ere ez zutela inoiz ikusi Din Din iturrik! (Alex, ez dut idatziko zeintzuei galdetu nizuen, bestela bertsoak aterako dizkizue eta).

Orduan, teknologia berrietara jo genuen, eta Anak lortu zuen mapa bat, non kokatuta zegoen UTM koordinatuetan, ditxosozko iturria. Haren nagusia izandako kultura-ondare zaleak eman zion mapa.

GPSa eskutan, abiatu zen espedizioa, kalean behera. Danel, Nora, Harkaitz, Lili, Ana, Iñigo eta ni neu, udako egun zoragarri batean, iraila bukaera izan arren.

Bidean, ordea, Joxemai eta Mikel azaldu zitzaizkigun, Ama Birginak bailiran. Horien izenak bai, aipatzekoak dira, Din Din ikusita baitzuten: azkenean, Din Dinen lekukotza fidagarria!

Hortaz, konbentzimendu osoz ekin genion bideari. Amuene eta Marabieta tartera iritsita, behera egin genuen, hor nonbait. Eta sasi, zabor eta hesiak gurutzatu ondoren, hormatzarra aurkitu genuen.

Pozik, atzera egin genuen buelta, eta orain herriari arro esatea daukagu, "bai, Din Din ikusi dugu, existitzen da" (argazkiak ditugu). Zutik dago, oraindik. Sasiak janda dago alde batean, eta harriak nola dauden hor ez dakigu.

Egoera hobean mantentzea posible da, eta gure ustez merezi du.

**Txintxu, alaba**



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

